

BEZEROEKIKO HARREMANAK

LAUAEMEn, aurreratu egin gara bezeroek produktua erosi ondoren izan ditzaketen beharretara, hala nola, dadoak, kartak eta ordezeko fitxak, eta jokoarekin batera datorren karta-sorta ez den beste bat, errepikakorra izan ez dadin. Era berean, bezeroek beste eskuliburu bat erosteko aukera dute, baldin eta eskuliburu hori galtzen badute. Hori guztia gure denda fisikoan eta gure web orriaren bidez lor daiteke.

Contact Us



Name Email

Type your message here...

Hala ere, galdera-erantzunen foro bat prestatu dugu, bai gure webgunean, bai gure google profilean, gure bezeroek jokoaren funtzionamenduari buruz edo izan ditzaketen beste zalantza batzuei buruz galdetu ahal izateko. Bi aukera horiek mahai gainean jarrita, bezeroek erabaki dezakete beren galderak publikoak izatea nahi duten, beren zalantza berberak dituzten

beste pertsona batzuek profilean idatz ditzaten, edo gmail pribatu bat web orriko (<https://lauaeme.wixsite.com/mahai-jokoak/shop>) harremanetarako atalaren bidez, pertsonalagoak izan daitezkeen zalantzatarako. Gainera, beti jar daitezke gurekin harremanetan Instagram bidez (@lauaeme), gmail bidez (lauaeme@gmail.com) edo baita guri deitzeko aukera ere, bezeroari zerbitzua emateko telefono-zenbaki ([+34 636 54 27 49](tel:+34636542749)) bat jarri baitugu.

Bestalde, Googlen sortu dugun profilak «reseñas» izeneko atal bat du. Bertan, bezeroek jokoari buruzko iritzia eman eta hau baloratu dezakete, beste pertsona batzuek erabaki dezaten bilatzen ari diren produktua den ala ez. Era berean, bezeroek guk irakurriko ditugun iradokizunak egin ahal izango dituzte produktua hobetzeko eta bezeroek gure jokoan nahi dutenera gehiago hurbiltzeko.



- LEHIAKETA

Gure enpresa, eta bereziki gure produktua, ezagutarazteko eta bezeroak fidelizatzeko behin frogatuta, diseinu eta irudimen lehiaketa bat antolatzekeo ideia garatu nahi izan dugu, non edonork parte har dezakeen, inolako adin tarterik gabe.

Lehiaketa parte-hartzaileei bost karta emango diegu, jokoan dauden bost karta, eta horiek kartaren funtzioa baino ez lukete ikusiko, beraz, bost karten irudia diseinatuko lukete eta gure webgunean sinalaturiko atalean bidali behar izango dute. Jarraian, guk bere diseinuak bidali dituen jende guztiaren artean hautatuko genuke hoberenak, eta horietako hogeita hamar aukeratuko genituzke originaltasunean, diseinuan eta proposatutako kartaren funtzioarekiko harremanean oinarrituta.

Hautatutako hogeita hamar pertsonak adostutako lekura joango dira hurrengo proba egiteko, eta bertan gure taldeak sortutako funtzio berriak dituzten bi karta emango zaizkie. Parte-hartzaileek karta bakoitzeko ilustrazio bat diseinatu beharko dute, ordu eta erdi batean, laurogeita hamar minutuko epean.

Proba amaitzean, gure taldeak bost diseinu onenak erabakiko ditu, eta finalera pasatuko dira. Bertan, bost finalistak joango dira, eta partida bat jokatuko dute gure 2020ATTACKen Premium bertsioan. Lehiaketa honetarako bakarrik diseinatuko dena, eta, etorkizunean, prezio altuagoarekin salduko da jatorrizko bertsioarekin konparatuz.

Partidaren irabazleak premium edizio-jokoa eramango du, inolako kosturik gabe, eta pertsona horrek sortutako bost diseinu aukeratuko ditu, aurrerago jokoaren beste bertsio batean gehituko direnak.

Gainerako jokalariek, hau da, irabaztea lortu ez duten lau finalistek, inolako kosturik gabe eramango dute jatorrizko bertsioaren jokoa, eta beren bi diseinuen artean aurrerago irabazlearen diseinuekin batera sortutako bertsioan agertuko direnak aukeratuko dituzte.